

Oñatin, milla bederatzirehun eta berrogetamaboskarren urteko orrillaren ogeta-bederatzian, Arantzazuko lekaretxe Frantziskotarran, Irigarai jauna maipuru dala ta Mitxelena, Villasante, Oleaga euskaltzainak eta Arrue euskaltzainordea berton dirala, egiten dau Euskaltzaindiak egungo deitutako batzarra.

Araudizko otoitza egin eta gero, lenaurreko batzar agiria irakurri da ta aobatez onetsia izan da.

Irigarai jaunaren asmoz, *Vocabulario Navarro* deritzan liburu polit eta aipagariaren egile Jose Maria Iribarren jauna, Euskaltzain urgazletzat artzea aobatez ebatzi da. Onan adierazo bekio.

Villasante jaunak damoz Euskaltzaindiarentzat berak idatziriko "Goi argi" ta "Paradigmas de la conjugación vasca. Dialectos guipuzcoano y vizcaino" gutun ederrak. Biotzetiko eskerrak emoten dakoz.

Villasante berak dino egoki litekela *Luberti* deritzan aldizkariaren antzeko euskal astekari barria argitaratzea. Asmo au euskal astekari barria argitaratzea. Asmo au euskal izkuntzarentzat garrantzi andiko ta oso onuragarri da, batzarkide guztien aburuz, eta bera dala ta beredin zertzelada aitatu dira. Azkenean erabagi da Villasante berak gai au zeatzago aztertu dagiala eta urrengoetariko batzar batera zelan bete ta egin leiken egikizuna ekarri dagiala.

F. Krutwig'ren idazki bat irakurri da. Alemaniako "Vokerkunde" erakustokian euskal gauza batzuk badaukezala, baina geiago artuko leukeezala, ta, eurak aitaturik, ia Bizkai, Gipuzkoa ala Nafarroako Ekautai eskaturik ala beste zelanbaiten eta nonbaiten zuzenduta, bidaldu al izango ete leiteken itantzen dau. Al dala bere eskari ori beteko dala erantzun bekio.

Onetan, Etxaide euskaltzainburuorde jaunak urrutidazkiz bidaldiriko agur sutua eldu da. Pozik artu da.

Azkenez, Arantzazuko Lekaidaba gurgarriari ta bertoko lekaide euskaltzaleai, Euskaltzaindiari egin dautsen abegi ederraren ordainez, esker bizi ta bizkorra agertzen dake.

Eta beste barik, araudizko otoitzez amaitu da batzarra.